



Hernanik kronika.net TOKIKOM

Asteartea, 2012/01/10

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Publizitatea

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun
data
2012
urtarrila
9

BILATU

Kronika Zaharrak

KRONIKA.NET



TXOTX DENBORALDIAREN IREKIERA ASTIGARRAGAN

Julian Iantzi aurkezleak irekiko du denboraldiko aurreneko kupela, bihar

Petritegi Sagardotegian izango da irekiera ekitaldia, 13:45etan. Aurretik, uztaren eta sagardo berriaren ezaugarriak azalduko dituzte.

2012/01/10 - Asteartea

Gure sagardo berria oihukatuta irekiko du bihar eguerdian Julian Iantzi aurkezleak, txotx denboraldia. Urteroko legeaz, Astigarragako Petritegi sagardotegian izango da ekitaldia, eguerdiko 13:45etan. Aurkezlearen eginbeharra, lehenengo kupela ireki, eta sagardo berria probatzea izango da. Hala, ofizialki zabalduko du denboraldia.

Uztaren eta sagardo berriaren nondik norakoak, Sagardoetxean

Ekitaldi nagusiaren aurretik, eguerdiko 12:00etan, Andoni Gartzia Astigarragako Alkateak uza berria aurkeztuko du Sagardoetxean, eta sagar eta sagardo berriaren ezaugarriak emango ditu. Horiez gain, sagardoaren munduan azken aldian emandako gertaera garrantzitsuenak ere, azalduko ditu. Ondoren, aurtengo protagonistak, Julian Iantzik, sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxearen ondoko zelaian.

Sagar kantitatea, joan den urtekoaren antzekoa

Kronikara bidalitako prentsa oharrean aurreratu dutenez, aurtengo sagar kantitatea joan den urtekoaren antzekoa izan da, fruitu tamaina onari esker, eta ekoizpen kontrolatuari eta izurriteak saihesteko prentzentziari esker.

Ahoan lehorra, eta sentsazio luzeko sagardoa

Udazkeneko eguzkiari esker, sagarraren elementu aromatikoak ondo bildu dira, eta hala, zuku afurutatu eta freskoak lortu dira. 2011ko Euskal Herriko uztak 10 milioi sagardo litro inguru ekoiztea ahalbidetu du; joan den urteko kantitatearen

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



AÑARBE -
UHOLDEETAKO
TXOSTENA

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



antzekoa.

Sagardoari dagokionean, hori kolorekoa da, lasto-koloreko tonuekin. Ahoan lehorra da, txinparta finekoa eta sentsazio luzea uzten duena.

 Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

[web mapa](#) | [kontaktua](#)

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005

BEHOBIA-
DONOSTIA
Hernaniarren
sailkapena

BEHOBIA-
DONOSTIA Sailkapen
orokorra



BESTE HEDABIDEAK TOKIKOM

ANBOTO:
Umeentzako jolas-parkeak
zabalik

ANBOTO:
Errege magoen kabalgata
hainbat herritatik pasatuko
da

ANBOTO:
Errege magoen kabalgata
hainbat herritatik pasatuko
da gaur

DOBERA BLOGAK

ZUBIETA-SOS:
Nafarroa: FCCri ustekabeko
etsaia sortu zaio
Olatzagutia inguruan

ZUBIETA-SOS:
Urriko albiste eta iritzi
guztiak
